

herrera

Mozkor Frentekideen liga

hasia da dagoeneko, Herrerako Mozkor Frentekideok lagun taldeak antolatutako X Liga Txapelketa. Urtero bezala, urritik apirilera bitarte, larunbatero, paleta-goma partiduak izango dira auzoko pilotalekuan.

Bi mailatan banaturik, 11 bikotek parte hartuko dute txapelketa honetan. Hala ere, eta hori da txapelketa honen ezaugarri nagusienetakoa, partehartzaile bakoitzak izengoitia izan beharko du jokatu ahal izateko. Aurtengo ligarako gainera, txapelketa modu egokian joan dadin Mozkor Frentekideak joko araudi zorrotza finkatu du.

LARRAITZ GARMENDIA (TFNOA.: 391267)




altza

Udazkena, txirrindentzak

gurea Txirrindularitza Taldeak aurrera darama uda hasieran finkatuta irteera egutegia. Neguko hotzak iritsi baino lehen, udazken honetako eguraldi aproposak igandero txirrindaz 120 kilometrotik gorako ibilbideak egitera bultzatzen ditu altzatar hauek. Gurea

taldean altzatar gazte eta helduek hartzen dute parte eta guztien helburua txirrindan igande atsegin bat pasatzea baino ez da, bakoitzaren entrenamendu maila kontuan hartu gabe, izan ere, batzuk egunero entrenatzen duten bitartean, beste batzuk igandeko irteera hau izaten baitu-

te asteko kirol nagusi. Hala ere, orain, negua gerturatzen ari dela eta, txirrinda baztertu egin beharko dute gehienek eta gimnasioetako entrenamenduak hasi beharko dituzte. Baina udaberria hasi orduko, txirrinda eskuratu eta berriz ekingo die taldekoek igandetako ibilaldiei.



"EUTSI"

EUTSI

Kirol medikuntza

ARANZABAL SENDAGILEA
GORROTXATEGI SENDAGILEA

Kale Berria 15 - Tfnoa.: 290447



KALEFAKZIO

INSTALAKUNTZAK

Seriotasuna, kalitatea eta materialik onenak

Madrid hiribidea 10 • Tfnoak.: 45.30.89 eta 909-42.69.54



Etxe bat erosi edo zurea saldu nahi baduzu, dei ezazu LARRUN MENDI agentziara, itxaroten zaitugu.

Hernani kalea, 7-behea
Alderdi Eder zentru komertziala
Tfnoak.: 420406/422565

P. ARRILUZEA

URDAITEGIA
FRUITUAK

ARDOAK, EDARIAK, TXANPAINAK
IMPORTAZIOAK

EUSKAL HERRIKO JAKIAK

ABUZTUAK 31, 13 -TFNOA. 425666